



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2021eko bigarren hiruhilekoa




LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familien konfiantzak susperraldi handia izan du
- Estatuko eta EB-27ko familien konfiantza hobetu da (zertxobait gutxiago)
- konfiantza berreskuratzeko joera zabaldu egin da, baina maila desberdinean




1 EAEko familien konfiantzak susperraldi handia izan du

2021eko bigarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantzak hobekuntza handia izan du (+34 puntu): baikorra da orain (2) eta 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta 2019ko bigarren hiruhilekoaren artean izandako antzeko balioetan kokatu da.

Covid-19ak sortutako pandemia dela eta, EAEko familien konfiantzak behea jo du lau hiruhilekotan jarraian, eta susperraldirako ezinbestekoa izan da osasun-egoera kontrolatzea. Txertaketak (abendua amaieran hasi zen, baina martxotik-apiriletik aurrera bizkortu da), kutsatzeen kontrolak eta pandemiaren intzidentzia jaitsi izanak bultzatu dute familien konfiantza.

Hala, EAEko familien igurikimenean araberak, badirudi normaltasuna berreskuratzeko dela eta krisi sakonago eta luzeagoa iragartzen zuten egoeretatik urrunduko dela.

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE




2 | Estatuko eta EB-27ko familien konfiantza hobetu da (zertxobait gutxiago)

Egoeraren orokortasunak mundu osoko kontsumitzaileen konfiantza kaltetu zuen, baita Estatukoena eta EB-27koena ere. Baina garrantzitsua da nabarmentzea Estatuko eta EAEko familien ezkortasuna (-23 eta -22, batez beste 2020an) handiagoa izan zela EB-27ko familiaena baino (-15).

Konfiantza maila gehiago okertu denez, espero zitekeen hobekuntza-heina zabalagoa izatea Estatuko eta EAEko familietarako. Horrekin lotuta, bigarren hiruhilekoko emaitzek horixe berresten dute, Estatuko eta EAEko familien konfiantza gehiago berreskuratu dela (+11 eta +34 puntu) Europako familietan baino (+7 puntu).

Aipatu beharrekoa da EAEko familiak dagoeneko baikorrak direla (2); aldiz, Estatuan (-11) eta EB-27n (-7) balio negatiboetan mantentzen da (oraindik).



1. II. Hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Apirila-maiatza batez bestekoa.


3 | konfiantza berreskuratzeko joera zabaldu egin da, baina maila desberdinean

Kontuan hartutako lau herrialdeetako familien konfiantza igo egin da. Baina konfiantzaren ibilbidean, erregistratutako hobekuntza mailak eta lortutako emaitzak desberdintasunak dituzte.

Frantziako eta Alemaniako familietan (+6 eta +5 puntu) konfiantza hobetu da, baina oraindik balio negatiboetan daude (-7 eta -6, hurrenez hurren). Bestalde, Herbeheretako familietan (Frantziako eta Alemaniako antzeko konfiantza-galerarekin) konfiantza berreskuratzeko profil askoz argiagoa dute, eta bigarren hiruhilekoan (+8) dagoeneko balio positiboetan sartu dira (2). Azkenik, Danimarkako familien konfiantza ez da negatiboa izan eta ibilbideak pertzepzio baikorra sendotu du (8).

Azken batean, familien konfiantza hobetu egin da, baina ingurune bakoitzaren egoeraren arabera.

— Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak —



1. II. Hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Apirila-maiatza batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK


- ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak nabarmen hobetu dira
- langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenak nabarmen hazi dira
- familiako ekonomiaren gaineko konfiantza sendotu egin da
- aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimen nabarmen positiboekin
- EAEko familiek urtearen bigarren zatia baikortasunez hasi dute

4 | ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak nabarmen hobetu dira

Ekonomia orokorraren gainean EAEko familiek dituzten igurikimenek hobekuntza izugarria izan dute eta 50 puntu igo dira: balio negatiboetatik balio positiboetara itzuli dira (2) eta pandemia aurreko antzeko mailara. Baina, are gehiago, 2019ko bigarren seihilekoko balioak gainditzen ditu, ordutik aurrera konfiantza okertu egin zelarik (-10 eta -19, hirugarren eta laugarren hiruhilekoan).

Hobekuntza hori gertatu da datozen hamabi hilabeteetan egoera ekonomiko orokorra hobexeara edo askoz hobea izango dela uste dutenen kopurua handitu delako (hamar lagunetik bat izatetik hamarretik lau izatera pasatu dira) eta okerxeagoa edo askoz okerragoa izango dela uste dutenen kopurua murriztu delako (hamarretik zazpi izatetik hamarretik hiru izatera).

Jarduera leheneratzeari lotutako datuen ondorio dira horiek –euskal ekonomiaren (+% 0,2 lehen hiruhilekoan) edo jarduera industrialaren (+% 2,4, maitza) hazkundea–, pandemiak gehien baldintzatu dituen sektoreetan izan ezik, haietan jarduera ez baita normalizatu.




5 | langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenak nabarmen hazi dira

Langabeziaren bilakaerari buruzko EAEko familien igurikimenek aurrekaririk gabeko igoera izan dute: 58 puntu irabazita balio positiboetara itzuli dira eta 2020ko lehen hiruhilekoan, pandemia aurretik, erregistratutakoak baino hobeak dira.

Hamar lagunetik zazpik uste dute langabezia jaitsi egingo dela (% 43) edo mantendu egingo dela (% 27); aldiz, hamarretik hiruk soilik (% 30) uste dute hazi egingo dela datozen hamabi hilabeteetan. Pertzepzio negatibo hori (*“langabeziak gora egingo du”*) izan da pandemia hasi zenetik gehiengoan iritzia 2021eko lehen hiruhilekora arte.


Igurikimen horiek Gizarte Segurantzak EAEn erregistratutako afiliazioaren eta langabeziaren emaitzekin bat datoz (963.214 eta 122.618 lagun, 2021eko maiatzean), krisi honetako emaitza okerrenekiko suspertze-erritmo argiarekin (938.585 eta 146.450 lagun 2020ko abuztuan), eta pandemia aurreko mailetara hurbiltzen ari dira (973.152 eta 117.239 lagun, 2020ko otsailean).



6 | familiako ekonomiaren gaineko konfiantza sendotu egin da

Familiako ekonomiarekiko EAEko familiek duten konfiantza ere okerragotu egin zen pandemian, baina ekonomia orokorrarekiko edo langabeziarekiko baino neurri txikiagoan. Era berean, igurikimen horiek ere nabarmen hobetu dira (+14), baina ez datu positiboetara sartzeko adina (-2). Hala, dagoeneko 2018an eta 2019an erregistratutako en antzeko balioak dituzte; pandemia aurreko urteak ziren horiek eta baikortasunetik gertu ziren familiak orduan.

Emaitza horretan, erabakigarria da familien bi herenek uste dutela berdin jarraituko dutela (% 70, ehuneko +3 puntu) edo egoera hobetu egingo dela (% 14, ehuneko +10 puntu); aldiz, murriztu egin da okerrago egongo direla dioten multzoa (% 16, ehuneko -13 puntu). Familia gehienentzat, egonkortasuna nagusitu da eta perspektibak lan-egoeraren arabera aldatzen dira. Hala, baikorra goak dira enplegua duten edo erretiratuta dauden pertsonak (-1, bi kasuetan) langabezia daudenak baino (-7).




7 | aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimen nabarmen positiboekin

EAEko familien aurrezkiaren gaineko igurikimenak (datozen hamabi hilabeteak) ez dira hain ezkorrak izan, kontsumitzaileen konfiantzaren inguruko gainerako adierazleek erregistratutako gainbeheratik oso urrun. 2021eko bigarren hiruhilekoan adierazle hori ere hobetu da (+10 puntu) eta baikorra da (4), 2019an erregistratutakoen antzeko balioak lortuta.

Izan ere, familien erdiek diote ziur (% 15, ehuneko -2 puntu) edo seguruenik (% 42, ehuneko +7 puntu) aurrezteko egingo dutela, eta beste erdiak uste du seguruenik ez duela aurreztuko (% 23, ehuneko +6 puntu) edo ziur daudela ezetz (% 20, ehuneko -12 puntu).

EAEko familien pertzepzio hori bat dator aurrezki-tasaren bilakaerarekin¹, 2020an % 14,7koa izan zen, 2019koa (6,3%), edo 2013ko (% 7,9) edo 2009ko (% 11,3) krisi-garaietakoa baino handiagoa.



8 EAEko familiek urtearen bigarren zatia baikortasunez hasi dute

Bigarren hiruhilekoak EAEko familien konfiantzan inflexio-puntua markatu du, dagoeneko baikorrak baitira (2, +34); azken lau hiruhilekoekiko (nabarmen ezkorrak ziren) aldaketa harrigarria izan da hori, pandemiak eragindako narriadura gaindituta.

Pandemiaren intzidentzia-adierazleak hobetzea, pixkanaka biztanleriaren immunizazioa lortzea, mugikortasuna berreskuratzea eta harreman sozialetan murrizketak pixkanaka arintzea bultzada izan dira konfiantza berreskuratzeke.

Hori guztia egoera ekonomikoa eta enplegua hobetzen ari den testuinguruan (sektore jakin batzuetan izan ezik); hala, 2021eko bigarren hiruhilekoan, ekonomia orokorraren (+50) eta langabeziaren (+58) igurikimenak nabarmen suspertu dira, hain zuzen ere dagoeneko baikorrak dira.

Familiako ekonomiaren (+14) eta aurrezteko gaitasunaren (+10) gaineko igurikimenak hobetu egin dira, hala, kontsumitzaileen konfiantzan sartutako lau adierazleen artean aurrezki-adierazlea da baikorrena. Laburbilduz, EAEko familiek urtearen bigarren zatiari baikortasunez ekin diote, pandemiak baldintzatu dituen azken hiruhilekoetako ezkortasunetik urrunduta.

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	<u>2019</u>	<u>2020</u>	<u>IIH-20</u>	<u>IIIH-20</u>	<u>IVH-20</u>	<u>IH-201</u>	<u>IIH-201</u>	<u>Aldea</u>	
Familien konfiantza	-2	-22	-24	-30	-33	-32	2	+34	▲
Ekonomia orokorra	-6	-33	-32	-45	-50	-48	2	+50	▲
Etxeko ekonomia	-2	-12	-13	-15	-17	-16	-2	+14	▲
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-44	-58	-60	-56	2	+58	▲
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	-6	-4	-5	-6	4	+10	▲



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioen gorakadaren gaineko igurikimena finkatu egin da
- erosteko unearen inguruko balorazioa positiboa da
- “erosketa handiak” egiteko igurikimena positiboa da
- etxebizitza eta autoa erosteko asmoa motel, baina hobetzen doa
- kontsumo handia bultzatzen duten adierazleak suspertu dira




9 | prezioen gorakadaren gaineko igurikimena finkatu egin da

2021eko bigarren hiruhilekoan, datozen hamabi hilabeteetan prezioek izango duten bilakaerari buruz EAEko familiek duten balorazioa okertu egin da (-32, -4 puntu); beraz, igurikimen inflazionistak finkatu egin dira (-31, -16, -23 eta -28 2020ko bigarren hiruhilekotik 2021eko lehen hiruhilekora).

Hala, hamar familiatik lauk (% 47, ehuneko +3 puntu) uste dute prezioak orain arte baino azkarrago haziko direla. Aldiz, ia beste lauk (% 38, ehuneko -1 puntu) uste dute orain arte bezala haziko direla. Hamarretik bi familiak baino zertxobait gutxiagok (% 15, ehuneko -1 puntu) uste du mantsago haziko direla.

EAEko familiek gorakada inflazionistaren igurikimen horiek KPIaren bilakaerarekin lerrokatzen dituzte, eta hain zuzen ere, KPIak urteko kopuru metatuetan (apirilera arte), % 1,7eko eta %1,6ko igoerak izan ditu Estatuan eta EAEn, 2020ko aldi berean izandako -% 1,2 eta -% 1,1etik oso urrun.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez.

10 | erosteko unearen inguruko balorazioa positiboa da


Oro har, nola baloratzen duzu gaur egungo unea, etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteari dagokionean?

Konfiantza berreskuratzeko joera erosteko unearen balorazioa atzeratu da. Adierazle hori nabarmen hobetu da (+15), dagoeneko balio positiboetara iritsi da (2), eta pandemia aurreko urteetan ere erregistratu gabeko balioak dira horiek.

Oro har, erosteko unearen balorazioari dagokionez axolagabetasun-iritzia da oraindik nagusi (% 56), baina igo egin da une ona dela uste duten familien proportzioa (% 23), eta murriztu egin da une txarra dela uste dutenen multzoa (% 21).

Ekonomia orokorrarekiko eta enpleguarekiko igurikimenak suspertu izanak lagundu egin du erosteko unearen balorazioa hobetzen, baita erosketak egiteko jarrera hobetzen ere.

Erosteko unearen balioztapena¹
(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez


11 “erosketa handiak” egiteko igurikimena positiboa da

Nolakoak uste duzu izango direla etxeko erosketak eta gastuak, adibidez, altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak, etab., datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familien erosketa handien gaineko igurikimen-indizeak pandemiaren eraginaren erritmoari jarraitu dio (-17, -21, -12 eta -9koak izan 2020ko bigarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehen hiruhilekoaren artean). Hobetzeko bilakaera berretsi egin da bigarren hiruhilekoan (+10), dagoeneko positiboa den indizearekin (1). Erosketa handi gehiago egingo dituela uste duen multzoa ugaritu delako (% 23, ehuneko +10 puntu) eta gutxiago egingo dituela uste duen multzoa murriztu delako (% 19, ehuneko -6 puntu) gertatu da hori.

Hainbat faktore izan dira erosketa handiak aurreratzeko testuingurua sortzeko, hala nola pandemiak atzera egin izana, familiako ekonomian konfiantza berreskuratzea eta aurrezki-igurikimenak eta ibilbidea positiboa izatea. Hain zuzen ere, EAEko familiak kontsumoan² izandako igoerak (+% 0,9, hiruhileko arteko tasan, prezio korronteak) berretsi egiten ditu igurikimen horiek.

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹



¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.

12 etxebizitza eta autoa erosteko asmoa motel, baina hobetzen doa

EAEko familien % 1,7k adierazi du etxebizitza erosiko duela datorren urtean. Ehuneko horrek azken lau hiruhilekoetako erregistroak hobetu ditu. Metatutako aurrezkia, finantza-produktu tradizionalen errentagarritasun baxua, erabaki atzeratuak edo alokairuen kostua izango lirateke, besteak beste, guztira etxebizitzen erosketak¹ bultzatuko luketen faktoreak. Hain zuzen ere, 2021eko lehen hiruhilekoan etxebizitzen erosketak, guztira, hiruhileko arteko igoera izan du, % 24koa eta % 15koa EAEn eta Estatuan, hurrenez hurren.

— Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



Ibilgailu bat erosiko duten familien ehunekoa mantendu egin da (% 5,3) eta ez da hobetu guztiz. Eskararen ahultasuna berretsi egin da zenbait faktoreren eraginez, esaterako, motorizazio aukeratzearen inguruko zalantzak (fiskalitatea) edo erosteko laguntza berrien igurikimenak, eta horiei gehitu behar zaizkie, biztanleriaren zahartze-intzidentzia² eta ohitura-aldaketak.

— Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



13 | kontsumo handia bultzatzen duten adierazleak suspertu dira

2021eko bigarren hiruhilekoak erakusten du EAEko familiek kontsumo- eta inbertsio-erabakien inguruko jarrera aldatu dutela:

- Prezioetan gorakada izango dela aurreikusten ari dira, inflazio negatiboa izan duen urtearen ostean (2020). KPlaren bilakaerak berretsi egiten ditu igurikimen horiek (2021eko apirilera arte metatuta), % 1,6 eta % 1,7ko igoera izanik EAEn eta Estatuan.
- Erosteke unearen balorazioa dagoeneko positiboa da (2) eta susperraldi handia izan du (+15), hobekuntza ibilbidea berretsi du horrek.
- Era berean, erosketa handiak egiteko igurikimenak hobetu egin dira (1, +10 puntu), familietan metatutako aurrezkiari eta ekonomia orokorrekiko eta enpleguarekiko izandako balorazio positiboari esker.
- Etxebizitza bat (ohiko etxebizitza) edo autoa erosiko duela uste duen familia multzoa oso motel ari da hazten. Edonola ere, etxebizitzaren salerosketa-emaizak hazi egin dira (inbertsioa dela eta), aldiz, ibilgailuen salerosketak beherantz jarraitzen du (urtarrila-maiatza arteko metatutan, pandemia aurreko 2019ko aldi berean erregistratutakoa baino % 44 baxuagoa izan da).

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	IIH-20	III H-20	IV H-20	I H-21	II H-21	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-23	-20	-31	-16	-23	-28	-32	-4	▼
Erosteke unearen balorazioa	-5	-13	-22	-10	-13	-13	2	+15	▲
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-17	-21	-12	-9	1	+10	▲

¹ 2014, ICC neurriaren hasiera momentua

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazleak



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	III H-20	IV H-20	I H-21	II H-21	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-2	-22	-30	-33	-32	2	▲
• Estatua*	-6	-23	-27	-26	-22	-11	▲
• EB*	-6	-15	-15	-17	-15	-8	▲
○ Frantzia*	-9	-13	-12	-14	-13	-7	▲
○ Alemania*	-2	-10	-9	-11	-11	-6	▲
○ Danimarka*	--	--	1	1	3	8	▲
○ Herbehereak*	--	--	-15	-12	-6	2	▲
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-45	-50	-48	2	▲
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-15	-17	-16	-2	▲
• Langabezia	-4	-41	-58	-60	-56	2	▲
• Aurrezkia	2	-2	-4	-5	-6	4	▲
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-16	-23	-28	-32	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-10	-13	-13	2	▲
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-21	-12	-9	1	▲
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	2,1	0,9	0,9	0,9	1,3	1,7	▶
• Autoa	6,4	5,3	4,4	5,8	5,3	5,3	▶

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* II hiruileko datuak apirila-maiatza batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	III H-20	IV H-20	I H-21	II H-21	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-2	-22	-30	-33	-32	2	▲
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-21	-34	-29	-3	▲
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-31	-33	-36	7	▲
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-36	-31	-30	-2	▲
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-36	-33	-30	2	▲
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa/ norberaren konturakoa)	1	-19	-26	-31	-32	5	▲
• Langabea	-8	-31	-40	-50	-42	-11	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-35	-31	-28	2	▲
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-42	-45	-39	-12	▲
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-28	-31	-31	0	▲
• 2.800 €- tik gorakoa	4	-14	-19	-21	-18	13	▲

⇒ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazleak

	II H – 20	III H – 20	IV H – 20	I H – 21	II H – 21 _p	(azkena)
BPG	-19,5	-7,5	-7,6	2,9	--	I hir.
Familien kontsumoa	-20,3	-8,5	-9,1	-3,7	--	I hir.
Afiliazioa	-2,5	-0,4	+1,8	-0,7	0,8	maiatza
Erregistratutako langabezia	17,0	2,3	-7,9	-2,6	-3,9	maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	-13,4	17,1	-1,2	0,5	--	I hir.
Etxebizitzen salerosketa	-33,3	37,4	-10,5	24,2	--	I hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	-24,0	118,1	-17,6	-35,0	10,5	apirila-maiatza

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.


Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator, dokumentu honetan aipatzen dena familiaren konfiantzaren indize bezala, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.
- Maiatzaren 10etik 21era (2021ko II. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm